

Victoria Ariño, bizimodu latz baten aberastasuna

“ESTAZIÑO ONDOKO ESKOLIA? HORI VICTORIA ARIÑOK HERRIXARI EMONDAKO LURRETAN ALTxAU ZAN” ESAN ZOSTAN OIÑ DALA GITXI BATEK ETA ANDRA HONEN GAIÑEKO DATUAK BATZEN HASI NINTZANIAN, BESTE BATEK: “ORDUA ZAN BATERON BAT VICTORIAKIN AKORDATZIAZ. HERRIXARI HAREK EIÑ ZOTSAN BESTE MESEDEKIN!”. IDAZTI HONEK BALIXOKO ETE DAU OIÑ 30 URTEKO ESKERRONA BARRIZTEKO?

Maria Victoria de Ariño y Arguinzoniz Izelaieta kaleko 9. peorán jaixo zan 1889ko aprillaren 19xan eta 85 urte zitxuala 1974ko abuztuaren 2xan etxe berian hil zan. Pagorbeko kanposantuan 266 zenbakixa emonda dakan hiliboxan, marmol zurixak idatzitxa dakar bere izenaren azpizan: *“En testimonio de eterna gratitud a la familia de Ariño en su último vástago. La comunidad parroquial.”*

Ondorengo barik

Argixak izan ziran Ariño-tarrak; eskola barik bizi zanian jendia, eurak destakau eiñ eben. Magdalena Catali-

na de Arguinzoniz, Berrizko alabia, José M^a de Ariño y Areitio ermuarrakin ezkondu zan. Armeru lez hasi bazan be, gerora kontratista lanetan ekin zotsan zubixak eitxen. Máximo semiari estudixuak emon zotsiezen eta gerra aurrian udal sekretarixua izatiaz gain, Parrokixako administraziñua eruaten eban. Ezkondu eta ez eban famelixarik euki. Lorenzo, ordia, ez zan ezkondu eta Diputaziñuan diru-kobratzaile lez enpliauta euan. Hil zanian, Victoriari osaba-lehengosua ze beste senitartekorik ez jakon geratu. Baiña etxe-etxeke lez tratatzen eben, beti alkar laguntzen eta Victoriak harek diru premiña barik eua zela ikusitxa hiltzeeran bere ondasun guztixak Eliziari lagatzia erabagi eban.

Oso elizkoia zan; goizeko sei retan *“Albaku”* jo orduko elizan euan errezatzen, D. Teodororen aurretik. Zazpiretan, mezia eta illuntzixan, errosarixua. Andra zintzua, kalte harek iñori bez. Fiña gero, gitxi lez! larregikua aukeran. Erropa kontuetan, koplá gitxikua: anaixaren gabardiña bat bota lepotik eta kitxo! Jan be, neurri-xen. Hori bai, egunero perio-



Victoria Ariño, eskumatik bigarrena

dikua erosten eban, berbetan be edarto ekixan eta leitiari inportantzixa haundixa emoten zotsan. Hortik aurrera kuak, kapritxuak ziran berandako.

Testamendua

Bere azken urtiak dirua aurreratzen emon zitxuan, bera ez zanerako ahal danik eta ondasun gehixen lagatze-ko ilusiñuaz. Bere testamenduan Parrokixa osteko lokalen azken kontuak ordaintze-ko bihar zan dirua laga eban eta gaiñontzeko etxe, orube eta piñadixak herrixaren premiñetarako geratu ziran, Caja de Ahorrosaren administraziñupian.

Bere etxe parian ekan ortuan, estaziñuaren ostekaldian, 1980. urtian eskolak altxatu ziran, gerora Haur-

tzaindegi eta Musika Eskola lez erabillitxakuak. Enpresa etxe eraikitzaile batek haren ondoko lurak Domingo Atxaren senidiei erositxa ekazela eta, Udalarekin tratu bat siñatu eban: estaziño ondoko eskoliaren lurren jabetzaren orde, Goienkale 2an dauan Eizaga-Etxeberria etxiaren barriztatze eta atontze lanen kargua, 1717. urtian eraiki eta Ardinarrukuane-kua gatzizenez ezagunaua dan Resusta Apoita famili-xiana izandako etxe edarra.

Ume usaiña eta musika doiñuak ze besterik aidertzen ez daben leku hori pozik ikusiko leuke Victoriak; haren baten pentsauko leuke bere bizimodu estu eta apremixaua sikieran zeozetarako balixo izan dabela!

Estibalitz González

